

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3023

AGINDUA, 2013ko ekainaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, arte plastikoetako eta diseinuko lanbide-irakaskuntzako ikastetxe baimenduei diru-laguntzak emateko deia egiten da.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lanbide-irakaskuntzako heziketa-zikloen helburua da ikasleei, etorkizuneko profesionalak diren aldetik, kalitatezko arte-irakaskuntza ematea, eta lanbide-heziketa bermatzea, irudi, produktu eta inguruen diseinuarekin zerikusia duten jarduerak behar bezala burutu ahal izan ditzaten.

Arte plastikoetako eta diseinuko erdi eta goi-mailako heziketa-zikloekin zerikusia duten ikasketa guztiak biltzen ditu Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lanbide-irakaskuntzak.

Heziketa-zikloak antolatu dira Arte Plastikoarekin eta Diseinuarekin lotutako heziketa-munduaren eta lan-munduaren arteko zubi izan daitezen, eta, era berean, tresna baliagarriak izan daitezen arte- eta plastika-irakaskuntzaren eremuko heziketa hasi, eguneratu edo hobetu nahi duten guztientzat.

Esparru honetan, arte plastikoetako eta diseinuko heziketa-zikloen ohiko eskaintza publikoa Vitoria-Gasteizko Eskola Publikoan (Arte Eskolan) eman izan da, Ibarrekolanda BHIIn (Bizkaian) eta Usandizaga-Peñaflorida BHIIn (Gipuzkoan); era berean, ikastetxe pribatuek eskaintza osatzen dute. Ikastetxe horiek eskaerarik gehien duten espezialitateetan zentratzen dute eskaintza.

Ikastetxe horiek egiten duten lana errekonozitzeko eta horien sostenguan laguntzeko asmoz, honen bidez diru-laguntzetarako deialdia egiten zaie arte plastikoetako eta diseinuko ikastetxe pribatuei, agindu honetan adierazten diren baldintzetan.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea da Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-irakaskuntzako ikastetxe baimenduei diru-laguntzak emateko deialdia egitea, 2012-2013 ikasturteko langile-kostuak finantzatzeko.

Horretarako, deialdi honetan parte hartzen duten ikastetxeetako irakasleen ordainsari gordinak finantzatu ahal izango dira.

2. artikulua.– Kreditu erabilgarria.

Helburu horretarako, gehienez ere, 82.196,80 euro zuzenduko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura.

Diru-zenbateko hori handitu ahal izango da. Horretarako kontuan hartuko da eskatzen diren laguntzen zenbateko osoa eta ea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren bestelako laguntza-programak burutzean aurrekontuan zer geratzen den agortu barik; dena den, deialdia

ebatzi aurretik handitu beharko da diru-zenbateko hori. Halako egoera bat suertatuz gero, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen bidez emango da horren berri.

3. artikulua.– Onuradunak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradun izan daitezke Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lanbide-irakaskuntza ikastetxe baimenduak, betiere 2012-2013 ikasturtean bestelako diru-laguntzarik ,helburu berberarekin, jaso ez badute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailetik (Orain Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila).

4. artikulua.– Onuradunek bete beharreko baldintzak eta akreditazioak.

1.– Baldintzak.

a) 2012-13ko ikasturtean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko (orain Hezkuntza, Hizkuntza eta Politika Saila) beste diru-laguntzarik ez jasotzea helburu berberarekin.

b) Inor (pertsona zein erakunde) ezin izango da aurkeztu agindu honetan araututako diru-laguntza eta laguntzen deialditara, kasuan kasuko zehapenak ezarritako epean, baldin eta zehapen penala edo administratiboa izatearen diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galdu badu, edo horretarako gaitasunik gabe utzi duen legezko debekua badu, sexua bereiztearren egoera horretan daudenak barne, betiere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

c) Ikastetxeak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak.

2.– Organo kudeatzaileak automatikoki eta behar bezainbeste aldiz egiaztatuko du inoren baimenik gabe ea zergei eta gizarte-segurantzari dagozkion betebeharrak betetzen dituzten laguntza-eskatzaileek, beti ere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua -Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duena- betez, bere 50.3 artikuluan esandakoari jarraituz.

3.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren aldaketa betez, hain zuzen ere bere 50.6 eta 51.1 bis artikuluetan esandakoari jarraituz, betebeharrak hauek egiaztatuko dira eskaeran, erantzukizunpeko adierazpen bidez:

- 2012-13ko ikasturtean ez duela jaso Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko (orain Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila) beste diru-laguntzarik helburu berberarekin.

- Ebazpenean kontuan hartutako zirkunstanzien edozein aldaketa jakinarazteko konpromisoa hartzen dutela.

- Erakunde eskatzailea diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor edo administrazio-arloko zigorrik ez daukala, eta ez dagoela laguntza horiek jasotzeko ezgaitzen duen lege-debekuen eraginpean, beren beregi Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenaren arabera sexu-diskriminazioa egin izanagatiko lege-debekuen eraginpean.

- Erakunde eskatzaileak egunean dituela indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu den bezala.

- Eskabide honetan bildutako eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak direla, eta

• Laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen dituela.

5. artikulua.– Eskaerak aurkezteko izapideak.

1.– Izapidetze elektronikoa arautzen dute otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak, Administrazio Elektronikoari buruzkoak, eta Informatika eta Teknologiako zuzendariak 2006ko otsailaren 9an emandako Ebazpenak; ebazpen horren bidez, PLATEA E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa arautzen da. Helbide elektroniko honetan azaltzen dira eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko zehaztasunak: <https://www.euskadi.net>

2.– Baliabide elektronikoak erabiliz egin ahal izango dituzte ikastetxe interesdunek eskaerak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak emateko edo ukatzeko ebazpena jaso arte. Justifikazioaren tramiteak era berean egin ahal izango dira.

Honela, eskaerak modu elektronikoan aurkeztu ahal izango dira [euskadi.net](https://www.euskadi.net)-en egoitza elektronikoan: <https://www.euskadi.net>

3.– Eskaera bide elektronikoaren bidez egin eta gero egin beharreko izapideak – dokumentazioa zuzentzea eta espedientearen egoera begiratzea – egin ahal izango dira helbide honetan: <https://www.euskadi.net/misgestiones>.

4.– Eskaerak aurrez aurre ere egin ahal izango dira, Herritarren Arretarako Bulegoetan, Zuzenean deritzona, Hezkuntza lurralde-ordezkaritzetan, edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1192 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoetan, behar bezala betetako instantzia normalizatuen bitartez. Eskaera-eredua [euskadi.net](https://www.euskadi.net)-en egoitza elektronikoan eskuratu ahal izango da.

5.– Eskaera bat izapidetzeko eta dokumentazioa ekartzeko bide bat erabiltzeak, aurrez aurrekoa izan edo elektronikoa izan, ez dakar nahitaez bide hori bera erabiltzea hurrengo izapideak egiteko, eta edozein unetan aldatu ahal izango da.

6.– Eskaerekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira derrigorrez, 2012-2013 ikasturteko datuekin:

- a) Irakasleen zerrenda (I. eranskina).
- b) Ikasleen zerrenda (II. eranskina).
- c) Azken proiektuan matrikulatuta dauden ikasleak (III. eranskina).
- d) Kostu ekonomikoa (IV. eranskina).
- e) Urteko batez besteko kostua (V. eranskina).

6. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera.

7. artikulua.– Aurkeztutako eskabideko akatsak zuzentzea.

Ikastetxeen Zuzendaritzak eskabidean akats edo zehaztasun faltaren bat antzematen badu, interesatuari eskatuko dio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaez aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko, eta adierazi egingo dio, bestela, hori egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, beti ere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Admi-

nistrazio Prozedura Erkidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluari jarraiki ebazpena eman eta gero.

8. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Ikastetxeen Zuzendaritzak egingo ditu deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak.

9. artikulua.– Emateko prozedura.

1.– Eskabideak onartzeko, horiek bete egin beharko dituzte onuradunei eta diruz lagun daitekeen jarduerari eskatutako baldintza guztiak.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, berriz, kontuan hartuko da zenbat ordu finantza daitezkeen, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horretarako hainbanatu egingo da, onuradun bakoitzak finantzatzeko moduan, guztira, dituen ordu kopuruaren proportzio berean.

3.– Nolanahi ere, laguntzak ez du inoiz gaindituko 1. artikuluan diruz laguntzeko aurreikusten den gastuaren % 100.

10. artikulua.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Ikastetxeen Zuzendaritzak egindako proposamena ikusita, Hezkuntzako sailburuordeak emango du diru-laguntzen gaineko ebazpena. Ebazpen hori emateko epea sei hilabetekoa da, agindu hau argitaratu eta biharamunetik aurrera. Ebazpen hori banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarriko da.

2.– Epe hori igaro eta ebazpenik argitaratu ez bada, eskabidea ukatuzat joko da.

3.– Ebazpen honen kontra, gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Laguntza justifikatu eta gero, ordainketa bakarrean ordainduko zaie diru-laguntza ikastetxeei, diru-laguntza emateko ebazpena argitaratu, eta hurrengo bi hilabeteren buruan.

12. artikulua.– Diru-laguntza zertarako erabili den eta jasotako funtsak nola aplikatu diren justifikatzea.

1.– Laguntzaren justifikazioak betetako instantzia normalizatuen bitartez egin ahal izango dira. Era berean bide elektronikoz aurkeztu ahalko dira: <https://www.euskadi.net/misgestiones>; edozein modutan, langileen izenen zerrenda aurkeztuko da, eta banan-banan adierazita zenbat kostatzen den, guztira. Adierazitako langileek Gizarte Segurantzaren duten alta-kontratua edo -ziurtagiria erantsiko zaio; bestela, TCa edo horren agiri baliokideak erantsiko dira, langile horien lan-egoera normalizatuaren egiaztagiri moduan.

2.– Frogagiriak 2012-2013 ikasturtean egindako gastuenak izango dira, eta dagokion gobernu-organoei berretsita aurkeztuko dira (VI. eranskina).

3.– Laguntzak hilabeteko epean justifikatu beharko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunetik aurrera.

13. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 50.2. artikulua orokorrean jasotzen dituen betebeharrak gorabehera, agindu honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretatik, ebazpena EHAA-n argitaratu eta hamabost egunen buruan interesdunek beren beregi eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.

b) Diru-laguntza zertarako eman, horretarako erabiltzea, ez beste ezertarako.

c) Deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzak direla-eta Ekonomia Kontrolerako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren funtzioak betetzeko eskatutako informazio guztia bidaltzea.

d) Helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntzarik lortuz gero, diru-laguntza ematen duen Administrazioari jakinaraztea.

14. artikulua.– Beste laguntza batzuk jasotzeko aukera.

1.– Agindu honen bidez deitutako diru-laguntzak bateragarriak dira beste batzuekin, baldin eta beste erakunde publiko edo pribatu batek ematen baditu helburu bererako.

2.– Alabaina, xede bererako lortu diren diru-laguntzen zenbatekoa, guztira, kostu osotik gorkoa bada, diru-laguntzaren zenbatekotik gorako soberakina kenduko zaio deialdi honen bidez emandako laguntzarik.

15. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzarik aldatuz gero, beti ere diru-laguntzaren xedea betetzat jotzen bada, diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da.

2.– Horretarako, Ikastetxeen zuzendaritzak kitapen-ebazpena emango du; ebazpen horretan, doitu egingo dira emandako diru-laguntzen zenbatekoak.

16. artikulua. Diru-laguntza eskuratzeko eskubidea galtzea eta diru-laguntza itzultzea.

Diru-laguntza emateko baldintzak betetzen ez direla egiaztatuz gero, emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko da, eta jasotako dirua eta horren legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, beti ere kontuan hartuta, batetik, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena, eta, bestetik, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

17. artikulua.– Datu pertsonalak.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatzeko eta argitaratzeko. Datuok «Musika-eskolentzako diru-laguntzak» izeneko fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau kudeatzeko eta deialdiaren berri emateko bertan parte hartzen dutenei. Ikastetxeen Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Ikastetxeen Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara: Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen diote Ikastetxeen Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiaztatzeko aurkeztutako dokumentuak betetakoak direla.

18. artikulua.– Baremoak.

I. baremoa.– Parametro orokorrak.

Diruz laguntzeko orduak izango dira:

1.– Arte Plastikoetako eta Diseinuko zikloei, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kultura Sailak lehentasunezkoztat jotzen dituenei (Arte-argazkigintzari eta Lorategiko elementuei) 150 ordu diruz lagunduko zaie, baldin eta ikastetxe eskatzailean martxan ari badira.

2.– Arte Plastikoetako eta Diseinukoak ez, lehentasunezkoa ez den bestelako ziklo bakoitzeko 100 ordu.

3.– Euskaraz ematen den APD ziklo bakoitzeko: 50 ordu.

4.– APD zikloetan matrikulaturiko ikasle bakoitzeko (azken proiektuan matrikulaturiko ikasleak kenduta) diruz lagunduko dena:

– Lehentasunezko zikloetako ikasleengatik: 1,5 ordu.

– Gainerako zikloetako ikasleengatik: ordu 1.

1., 2., 3. eta 4. puntuetako datuak egiaztatzeko, «Ikasleen zerrenda» beteko da.

5. Azken proiektuan matrikulaturiko ikasle bakoitzeko: 4 ordu.

5. puntuko datuak egiaztatzeko, «Azken proiektuko ikasleak» agiria beteko da.

II. baremoa.– Irakaskuntzaren kostua.

Orduko batez besteko kostua ateratzeko, ondoko eragiketa egingo da: ekonomia-ekitaldiko guztizko kostua, APD zikloei buruzkoa, zati APD zikloetako asteko irakastorduak. I. baremoa aplikatuz ateratako irakastordu diruz lagungarri bakoitzeko, ehuneko (%) bat aplikatuko da, kostuaren arabera, eta ondoko taula aintzat hartuta:

Orduko kostuetan	Aplikatu beharreko portzentajea:
Asteko irakastorduak, 4284 eurotik gora	% 30
Asteko irakastorduak, 3130 eta 4283 euro bitartean	% 28
Asteko irakastorduak, 2143 eta 312 euro bitartean	% 24
Asteko irakastorduak, 2142 euro, gehienez ere	% 18

II. baremo honetako datuak egiaztatzeko, «Irakasleen zerrenda» eta «Kostu ekonomikoa» agiriak beteko dira.

III. baremoa.– Ikasleen kostuaren arabera.

Kalkulatzeko, kontuan hartuko dira, matrikula eta hilekoak direla-eta, 1. eta 2. mailako ikasleek duten batez besteko kostua; dena den, hortik kanpo geratuko dira amaierako proiektuaren matrikulak eta ikasturte urterako matrikulatuta ez daudenak.

Guztirako batez bestekoa kalkulatzeko, dituzten batez besteko kostuak guztira dauden zikloen artean banatuko dira. Azkenean, matrikulak eta hilekoak guztira dituzten prezioak gehitu, eta koeffiziente bat aplikatuko zaie I. eta II. baremoak aplikatuta guztira diruz lagun daitezkeen orduei, beti ere taula honen arabera:

Ikasleentzako kostu-moduluak (matrikula gehi hilekoak).	Aplikatu beharreko portzentajea.
Gehenez ere 2678.	I. eta II. baremoetatik batutako orduen % 30.
2679tik 3214ra.	I. eta II. baremoetatik batutako orduen % 20.
3215 eurotik gora.	I eta II. baremotik batutako orduen % 10

III. baremo honetako datuak egiaztatzeko, «urteko batez besteko kostua agiria beteko da.

IV. baremoa.– Diruz lagundu beharreko orduak kalkulatzeko.

Finantza daitezkeen ordu bakoitzeko diru-laguntza kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da: eskueran dagoen partidaren guztizkoa (2. artikulua) zati erakunde eskatzaile guztien ordu finantzarrien guztizkoa.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria argitaratzen denetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Prozedura-gaietan Agindu honek aurreikusten ez duen guztirako, osagarri moduan aplikatuko dira laguntza eta diru-laguntza publikoen gaineko legeak eta azaroaren 26ko 30/1992 Legea, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 18a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2013ko uztailaren 3a, asteazkena



Eskabidea
**LANBIDE IRAKASKUNTZAKO ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO
IKASTETXE BAIMENDUEI DIRU LAGUNTZAK**

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzailea *

Titularra Ordezkarria

Datu pertsonalak**Titularra**

Izena / Erakundearen izena *

Telefonoa

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua Gizona

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

 Emakumea

Zein lurralde/probintzian daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak *

Ordezkarria

Izena / Erakundearen izena *

Telefonoa

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua Gizona

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

 Emakumea**Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *** **Posta bidezkoa**

Helbidea *

Zk. _____ Sol. _____ Letra _____

PK *

Udalerrria *

Probintzia *

Herraldea * ESPAINIA

 Elektronikoa**Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza ***

Euskara Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago eman ez gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak**Bateragarritasun-adierazpenak**

Erakunde eskatzailea(k):

- Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio eta eman egin dio (atal honetako datuak "Beste finantziazio-iturri batzuk" Eranskinean zehaztu beharko dituzu).
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio, baina erantzunaren zain dago (atal honetako datuak "Beste finantziazio-iturri batzuk" Eranskinean zehaztu beharko dituzu).

Berariazko adierazpenak

Erakunde eskatzailea(k):

- 2012-2013ko ikasturtean ez dut jaso bestelako diru-laguntzarik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saitetik.
- Diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatuz gero, horren berri emateko konpromisoa hartzen dut.

Bestelako adierazpenak

Aitortzen dut:

- Erakunde eskatzailea(k):
 - Ez dauka diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
 - Ez dago diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko¹ lege-debekuen eraginpean.
 - Egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, araz zehaztu bezala².
 - Betetzen ditu indarreko legediak laguntza hauek jasotzeko ezarritako baldintzak.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

¹ Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

² 1/1997 Dekretuaren arabera, deialdia kudeatzen duen organoak berariazko baimenik gabe egiaztatuta ahal izango du erakunde eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

_____ (e)n _____ (e)an
(Tokia) (Data)

(Ordezkararen sinadura)

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Zure izenean ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Titularra*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu *titularrari* dagozkion datuak.
- Sina ezazu eskabidea.

Beste pertsona baten ordezkari gisa ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu ordezkatzeko duzun pertsonaren datuak *Titularra* atalean, eta zureak *Ordezkaria* atalean.
- Sina ezazu eskabidea.

Erakundeak beti ordezkari baten bidez aritzen dira, hortaz:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete ezazu *Titularra* atala erakundearen datuekin eta *Ordezkaria* atala zure datuekin.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

Posta bidezkoa: *Posta bidezkoa* atalean jarri duzun helbidera igorriko dira.

Elektronikoa: [Nire kudeaketak](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Han sartzeko, [onartutako ziurtagiri elektroniko](#) bat izan behar duzu.

Oharra: 10 eguneko epea duzu jakinarazpena sartzeko; bestela, jakinarazpena errefusatzat joko da, izapidea egintzat emango da eta prozedurak aurrera egingo du.

2013ko uztailaren 3a, asteazkena



I. ERANSKINA
IRAKASLEEN ZERRENDA.
ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IKASTETXEAK II. BAREMOA BETETZEKO.
2012-2013KO IKASTURTEA

Irakasleak. Izen-zerrenda, honako hauek zehaztuta: Arte Plastikoetako eta Diseinuko zikloetan astean emandako irakastorduetan eta irakastetxeetan


	Abizenak eta izena	Arte plastikoetako eta diseinuko zikloetan emandako espezialitateak	Orduak, maila eta irakastetxea				
			1 maila	2 maila	Azken p.	Orduak guztira	Minutuak guztira
1							
1	Orduak guztira						

"Emandako espezialitateak" zutabearen, emandako irakasgai guztiak adieraziko dira. Irakasgai bat baino gehiago ematen duen irakasleentzako, "Emandako espezialitateak" zutabe bat erabiliko da irakasgai bakoitzeko. "Orduak, maila eta irakastetxea" zutabearen, berriz, adieraziko da ikasgai bakoitzeko zenbat ordu ematen diren maila bakoitzeko .

_____ (e)n _____ (e)an

Zuzendaritaren sinadura eta ikastetxearen zigilua

2013ko uztailaren 3a, asteazkena



II. ERANSKINA
IKASLEEN ZERRENDA
I. BAREMOA BETETZEKO. 1., 2., 3. ETA 4. PUNTUAK
(erabil eranskin bat ziklo bakoitzeko)
2012-2013KO IKASTURTEA

ZIKLOAREN IZENA:

Lehentasunezkoa: Bai Ez

Hizkuntza: Euskara Gaztelania

	Ikasle-izenen zerrenda (abizenak eta izena)	Kurtsoa		Adina	Oharrak
		1.a	2.a		
1		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
1	Ikasleak, guztira	0	0		

_____ (e)n _____ (e)an

Zuzendariaren sinadura eta ikastetxeko zigilua

2013ko uztailaren 3a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA**GOBIERNO VASCO**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
*Ikastetxeen Zuzendaritza*DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de Centros Escolares

III. ERANSKINA
AZKEN PROIEKTUA EGITEKO IZENA EMAN DUTEN IKASLEAK
I. BAREMOA BETETZEKO
2012-2013KO IKASTURTEA

	Ikasle-izenen zerrenda (Abizenak eta izena)	Adina	Zikloa
1			
1	Guztira		

_____ (e)n _____ (e)an

Data eta zuzendariaren sinadura eta ikastetxeko zigilua

2013ko uztailaren 3a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA**GOBIERNO VASCO**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
*Ikastetxeen Zuzendaritza*DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
*Dirección de Centros Escolares***IV. ERANSKINA**
IKASTETXEKO KOSTUA
II. BAREMOA BETETZEKO
2012-2013KO IKASTURTEA**Gastuak**

Langileak	Gastua
Irakasleak	_____
Zenbat _____	
Irakasle ez direnak	_____
Zenbat _____	
Langile-gastuen subtotala	
Gainerako gastu arrunta	
Ekipamendua	_____
Funtzionamendua	_____
Subtotala	
APD ikastetxeko kostua, guztira	

Diru-sarrerak

Langileen gastuetarako beste administrazio edo erakunde batek emandako diru-laguntzak (zehaztu erantsitako orrian)	_____
Bestelako diru-laguntzak (zehaztu erantsitako orrian)	_____
Gainerako sarrera zehatzak(zehaztu erantsitako orrian) (ikasleenak)	_____

Arte plastikoetako eta diseinuko ikastetxeak dituen diru-sarrerak, guztira

Sarrerak - Gastuak

_____ (e)n _____ (e)an

Data eta zuzendariaren sinadura eta ikastetxeko zigilua

2013ko uztailearen 3a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA**GOBIERNO VASCO**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
*Ikastetxeen Zuzendaritza*DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
*Dirección de Centros Escolares***V. ERANSKINA**
URTEKO BATEZ BESTEKO KOSTUA
III. BAREMOA BETETZEKO
2012-2013KO IKASTURTEA


Ikastetxea: _____

	APD zikloaren izena	Matrikularen batez besteko prezioa 1.a eta 2.a	Hilekoen batez besteko prezioa 1.a eta 2.a	Guztira
Guztira batez besteko prezioak				
Ziklo kopuruak guztira				
Guztira batez besteko				

_____ (e)n _____ (e)an

Data eta zuzendariaren sinadura eta ikastetxeko zigilua

2013ko uztailaren 3a, asteazkena



VI. ERANSKINA

EMANDAKO DIRU LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

2012-2013ko ikasturterako emandako diru-laguntza _____ euro.

Honekin batera baimena daukan zentroko irakasleen zerrenda adierazi da. Zentroaren NPZa hau da:

Taula honetan ere ordainsari gordinak eta Gizarte Segurantzaren kostuak, 2012-2013ko ikaturteari dagozkionak, adierazten dira.

Abizenak eta izenak	Ordainsariak	Enpresako Gizarte Segurantzaren kostuak	Guztira
Guztira			

_____ (e)n _____ (e)an

Data eta zuzendariaren sinadura eta ikastetxeko zigilua